AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

681

90/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Arantza Albizuri andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko Ekonomia eta Finantzetako zuzendari lanpostutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 15eko 1893/1998 Ebazpenaren bitartez (azaroren 11ko EHAA, 215. zk.), Arantza Albizuri Sanz andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko Ekonomia eta Finantzetako zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Arantza Albizuri Sanz andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko Ekonomia eta Finantzetako zuzendari lanpostutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, San Eloy Ospitaleari, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.